



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

### **BERRIOZARKO UDALAREN MUSIKA ESKOLAKO PIANO IRAKASLE-LANPOSTUAN ALDI BATERAKO ARITZEKO KONTRATAZIO-ZERRENDA OSATZEKO DEIALDIA. IZANGAIEK EUSKARA JAKIN BEHARKO DUTE.**

#### **1.– Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da Musika Eskolako piano irakasle-lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko izangaien zerrenda bat eratzea, Berriozarko Udalaren Musika Eskolan sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko. Izangaiek euskara jakin beharko dute.

Izangaien zerrenda hori bat etorriko da Berriozarko Udalean aldi baterako langileak kontratatzeke kudeaketa-akordioan ezarritakoarekin. Akordio hori 2021eko martxoaren 31ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 72. zenbakian argitaratu zen.

1.2. Lanpostuak B mailako ordainsariak izanen ditu, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura aritzen diren langileei dagokiena, eta lanpostuaren osagarria %12koa izanen da.

1.3. Lanaldia lanaldi osokoa izanen da eta ordutegia nagusiki arratsaldekoa. Zerbitzuaren premietara egokituko da, eta eskumena duten administrazio-organismoek edozein unetan aldatu ahal izanen dute, aplikatzekoa den araudian jasota dagoenarekin bat eginez.

1.4. Kontratazioak legez dagokion probaldia izanen du.

1.5. Berriozarko Udalaren Musika Eskolan piano eskolak ematen gauzatuko da lana. Halaber, bere titulu profesionalari dagozkion beste lan batzuk agindu ahal izanen zaizkio, hala nola musika-hizkuntza, musika-hastapena, abesbatza, instrumentuen arteko taldeak eta abar.

#### **2.– Izangaien betebeharrak.**

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa. Era berean, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, baldin eta haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urteak beteta izatea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina gairidituta ez izatea.

c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean jarraian adierazten diren tituluak edukitzea, aukeran, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko egoeran egotea:



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

1. Goi Mailako Ikasketen titulua, pianoko espezialitatean, edo, bere kasuan, espezialitate horretako Erdi Mailako titulua, Musika Kontserbatorioen Erregelamendu Orokorrari buruzko irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuaren arabera jaulkitakoa.
2. Unibertsitateko diploma edo gradua, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo baliokidea, eta Erdi Mailako titulu profesionala pianoko espezialitatean.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

Izangaiek alegatzen badute eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak dituztela, baliokidetasun hori onartzen duen lege edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute edo, bestela, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Euskaraz jakitea, C1 mailaren titulua, EGA edo baliokidea dena aurkeztuz egiaztatua, edo eskatutako hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzen duen berariazko probaren bidez, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko erakundeetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuan ezarrita dagoenaren arabera.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik bereizia ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitortzea edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

g) Dagozkion eginkizunak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasun fisikoa eta psikikoa edukitzea.

### **3.– Eskabideak.**

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Berriozarko Udaleko Auzo-Bulegoan (Euskal Herria plaza 1) aurkeztu beharko dira (8:00etatik 14:00etara), edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako gainerako bideak ere erabil daitezke eskabideak aurkezteko. Zehazki, deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 egun naturaleko epean egin beharko dute.

Eskabidea posta-bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Eskabideak Berriozarko Udalaren erregistroan aurkezten ez diren kasuetan, eta eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barnean, deialdian parte hartzeko eskaera posta elektronikoz



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

bidaliko da [oac@berriozar.es](mailto:oac@berriozar.es) helbidera. Mezu elektronikoan adieraziko da dokumentuak zein erregistrotan edo posta-bulegotan aurkeztu diren.

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabidearen eredia Berriozarko Udaleko Erregistro Orokorrean emanen da, eta, horrez gain, Internet bidez eskuratu ahal izanen da, [www.berriozar.eus](http://www.berriozar.eus) webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizios edo interesdunak eskatuta zuzendu ahal izanen dira, noiznahi ere.

3.2. Behar bezala bete ondotik, eskabideari agiri hauek gehituko zaizkio:

a) Nortasun-agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Eskatutako titulazioaren kopia.

c) Euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentazioa edo euskarako proba egiteko eskaera.

d) Espedientea formalizatzeko eta azterketa-eskubideetarako 15,00 euro ordaindu izanaren ordainagiria (diru-sarrerara egiteko "Caixa"ren kontua: ES84 2100 5184 5422 0009 8217). Transferentzia-agindua honen alde egin beharko da: "Berriozarko Udala. Musika Eskolako pianoko irakasle izateko hautaprobak". Ez bada tasa ordaintzen, izangaia baztertuta geldituko da.

Azterketa-eskubideetarako tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean (23. ordenantza) ezarritakoarekin bat, hauek tasak ordaintzetik salbuetsita egonen dira:

a) %33ko edo handik gorako desgaitasun-maila aitortua dutenak.

b) Hautapoben deialdia egin aurretik hilabete batez edo luzaroago lan-eskatzaille gisa izena emanda egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribatuta egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea.

Lan-eskatzaillea dela frogatzeko, behar den enplegu-bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan-eskatzaille gisa izena eman zueneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da izena emanda egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo moldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere,



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

justifikatutako kasuetan izan ezik.

Behar den tasa ez ordaintzea nahikoa arrazoi izanen da izangaia hautaketa-prozeduratik baztertzeko.

Ez da azterketa-eskubideen itzulketarik egingen, baldin eta izangaia baztertzen bada interesdunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, esate baterako, betekizunak ez betetzeagatik edo deialdian eskatutako agiriak ez aurkezteagatik.

### **4.– Behin-behineko zerrendak.**

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda Berriozarko Udalaren iragarki taulan argitaratuko da, baita udal-webgunean ere (<http://www.berriozar.eus>).

Egun horretatik aurrera eta bost egun balioduneko epearen barnean, izangai baztertuek erreklamazioak egin edo akatsak zuzendu ahal izanen dituzte, udal-erregistroan eskabidea aurkeztuta.

Ez badago izangai bazterturik, zuzenean behin betiko zerrenda kaleratuko da, hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

### **5.– Behin betiko zerrendak.**

Behin ebatzi direnean aurkeztutako alegazioak, Alkatetzaren Ebazpena emanen da izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko, eta Berriozarko Udalaren iragarki-taulan eta udal-webgunean (<http://www.berriozar.eus>) emanen dira argitara, aurreikusita dauden hautaprobak egiteko egun eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzea ez da nahikoa deialdi honetan eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Kontratatzera deiararen unean izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertuta, eskatutako baldintzetako bat, denboran edo forman, betetzen ez dutela ohartuz gero, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai onartuen eta baztertuen zerrenda [www.berriozar.eus](http://www.berriozar.eus) webgunean argitaratuta egokia den jakinarazpena egindakotzat joko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan jasotako eraginetarako.

### **6.– Kalifikazio-epaimahaia.**

6.1. Kalifikazio-epaimahaia kide hauek eratuko dute:

1.- Epaimahaiburua: Mikel Etxeberria Agirre jn., Berriozarko Udaleko zinegotzia.

Ordezkoa: Berriozarko Udaleko lehen alkateordea, edo berak izendatzen duen pertsona.

2.- Mahaikidea: Eric Deza Hortelano jn., Berriozarko Musika Eskolako ikasketaburua.

Ordezkoa: Musika-irakasle bat, oraindik zehazteko dagoena.



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARko UDALA

3.- Mahaikidea: Marisa Catena Hervás and., Berriozarko musika-irakaslea.

Ordezkoa: Musika-irakasle bat, oraindik zehazteko dagoena.

4.- Mahaikidea: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikalak izendatutako pertsona.

Ordezkoa: Berriozarko Udaleko ordezkari sindikala, oraindik zehazteko dagoena.

5.- Mahaikide-idazkaria: Eneko Anaut Pla jn., Berriozarko Musika Eskolako zuzendaria.

Mahaikide-idazkari ordezkoa: titularrak izendatzen duen pertsona.

Epaimahaia hautaprobak egin baino lehen eratuko da.

6.2. Bere eraketak eta jarduketak balio izateko, gutxienez kideen gehiengo osoak elkartu beharko du.

Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

6.3. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako aurreikusita dauden arrazoiak suertatzen direnean. Organo deitzaileari eman beharko diote horren berri.

Era berean, izangaiek mahaikideak errefusatu ahal izanzen dituzte, aipatu diren egoera horiek suertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren inguruan sortzen diren arazo guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan edo guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta epaimahaiari haietan bakarrik emanen diote laguntza.

### **7.– Lehiaketaldia: gehienez 10 puntu.**

Puntu-kopuruaren banaketa:

–Esperientzia: gehienez 10 puntu:

Musika-eskoletan edo Kontserbatorioetan pianoko irakasle lanetan emandako zerbitzuen denbora: gehienez 10 puntu.

- Lan egindako ikasturte oso bakoitzeko 3 puntu. 0 puntu emanen dira, ez bada ikasturtea



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

osatu.

Alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahal izanen ditu epaimahaiak edozein unetan.

Lehiaketaldian puntu-kopurua eskatzen duten izangaiek eskabidean adierazi beharko dute edo hari gehitutako zerrenda batean, eta era zehatzean, dauzkatela alegatzen dituzten merezimenduak. Zalantzarik gabe kontuan hartzeko bidea ematen duten datu guztiak adierazi beharko dituzte, ezarrita dauden baremoen arabera baloratzeko, kontuan hartu ahal izan gabe espresuki agertzen ez diren alderdiak.

Edonola ere, dokumentuen bidez (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak) egiaztatzearen mende egingen da balorazioa, eskabidearekin batera aurkeztuko diren dokumentuen bidez, edo jada Berriozarko Udalak dituela jakinaraztearen mende. Azken kasu horretan, adieraziko da dokumentuak zehazki zein egoeratan aurkeztu ziren.

Nahikoa egiaztatuta ez dauden merezimenduak ez dira baloratuko. Gainera, alegatutakoa faltsua dela frogatzen bada, datu faltsuak aurkeztu dituen hautaketa-prozesutik kanporatuko da.

Alegatutako merezimenduak eskabideak aurkezteko epera amaitzeko egunean eduki beharko dira, eta, horrenbestez, egun horren ondoren lortutako merezimendurik ezin izanen du baloratu epaimahaiak.

### **8.- Probak.**

8.1. Oposizioaldia hasi baino lehen euskararen proba egingen dute deialdi honen 2.1.e oinarrian eskatutako ezagutza agirien bidez egiaztatu ez dutenek. Onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren ebazpena onartu ondoren, probaren tokia, eguna eta ordua adieraziko dira Udalaren egoitza elektronikoan.

8.2. Hautaprobak 2021eko ekainaren erdi aldera egingen dira, gutxi gorabehera. Onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren ebazpenean adieraziko dira lehen probaren tokia, eguna eta ordua.

Hautaketa-prozesuan hautapropa hauek egingen dira:

8.2.1.- Askatasunez aukeratutako obra bat jotzea.

Oposizioan parte hartzen ari den pertsonak askatasunez aukeratutako obra bat jo beharko du pianoan, obra bat edo gehiago eduki ahal izanen dituen, edo haien mugimenduak. Gutxi gorabeherako iraupena 15 minutukoa izanen da.



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

Jotzen den erreperitorioak akonpainamendurik behar badu, balio negatiboa izan dezake erreperitoristarik edo beste akonpainamendurik ez eramateak.

Epaimahaiari partituraren kopia emanen zaio.

Epaimahaiak egoki jotzen duenean proba emaitutzat eman ahal izanen du.

Proba honetan gehienez ere 30 puntu eskuratu ahal izanen dira, eta, gutxienez, 15 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geldituko dira.

Alderdi hauek baloratuko dira: testuaren zehaztasuna, erritmoaren sentimendua, agogikoak, soinu-planoak, soinuaren kalitatea, pasarte eta ehundura bakoitzari dagokion soinu-oreka, koloreak, dinamikak, fraseatua, komunikazioa, adierazkortasuna, sentiberatasuna, soinu-irudimena, barne-entzumena, entzuteko sentiberatasuna, musika-tresnaren kontrola, kontrol psikologikoa, egituraren kontzientzia musikala, interpretazioaren estiloa, memoria, sinkronizazioa, elkar-ulertze artistikoa, etab.

### 8.2.2.- Piano ikasle bati eskola bat ematea.

Oposizioan parte hartzen ari den pertsonak piano ikasle bati eskola bat emanen dio. Ikasle bati eman beharreko 15 minutuko saioa izanen da, Musika Eskolan irakasten den edozein mailatakoa.

Epaimahaiak egoki jotzen duenean proba amaitutzat eman ahal izanen du.

Proba honetan gehienez ere 50 puntu eskuratu ahal izanen dira, eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertuta geldituko dira.

Alderdi hauek baloratuko dira: komunikazioa, ikaslearekiko harremana, obraren edo ikaslearen zailtasunak bideratzeko baliabideak eta estrategiak egokitu eta sortzeko gaitasuna, musikako adibideen erabilera, eta baliabide eta estrategia ezberdinen erabilera musikako helburua lortze aldera, eta bai izangaiari egokiak iruditzen zaizkion beste batzuk ere.

Epaimahaiak egoki jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izanen ditu.

### 8.2.3. Elkarrizketa epaimahaikideekin.

Egindako probak eta lortu nahi den lanpostuaren gaiei buruzko ezagutza baloratzeko izanen da. Proba honetan epaimahaiak gehienez 10 puntu eman ahal izanen ditu. Proba hau ez da baztertzailea izanen.

8.2.4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiak nortasun-agiri nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio agiri bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertuta geldituko dira agertzen ez diren izangaiak edo aipatu den



## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

agirieta baten bidez nortasuna egiaztatzen ez dutenak.

Agertzen ez diren izangaiak oposiziotik kanpo geldituko dira.

8.3. Probaren egunak, orduak eta tokiak Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ezagutaraziko dira, aurretik nahiko denborarekin.

### **9.– Zerrenda.**

Behin probak eginda, izangaiak hartuko dituen zerrenda bat egingen da, puntu-kopuruen ordenaren arabera. Zerrenda hori, era berean, Internet bidez kontsultatu ahal izanen da [www.berriozar.eus](http://www.berriozar.eus) webgunean.

Parte-hartzaileen artean berdinketarik gertatzen bada, pianoko ikasle bati eskola bat emateko proban puntu-kopuru handiena lortu duena kontuan hartuta ebatziko da.

Lehenago ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak egingen duen berriazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden pertsona guztien artean bat hautatuko da ausaz. Berdinketa guztiak alfabeto-ordena kontuan hartuta deseginen dira, zozketan hautatutako pertsonaren izen-abizenak abiapuntu hartuta. Haren emaitzak webgunean eta Berriozarko Udalaren iragarki-taulan argitaratuko dira.

### **10.- Datuen babesa.**

2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, izangaiei ondokoa jakinarazten zaie:

- Berriozarko Udala da parte-hartzaileek deialdian emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.
- Datuen tratamenduaren xedea da langileak hautatzea deialdi honetako lanpostuak betetzeko.
- Oinarri juridikoa hau da: DBEOren 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua, eta DBEOren 6.1.b) artikulua, kontratu bat gauzatzeko behar den tratamendua, interesduna kontratu horren parte bat denean, edo berak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa dena.
- Datuak zein xedetarako bildu diren, xede hori lortzeko beharrezkoa den denbora guztian gordeko dira, bai eta deialdiaren edo datuen tratamenduaren ondorioz izan daitezkeen erantzukizun guztiak zehaztu ahal izateko ere. Artxiboen eta dokumentazioaren gaineko araudian ezarritakoa aplikatuko da (Nafarroako Toki Entitateen agiriak ebaluatu eta





## AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR BERRIOZARKO UDALA

ezabatzeko jarraibideak).

- Datuen komunikazioa eginen da legeak aurreikusitako kasuetan (5/2015 LED, urriaren 30ekoa), gardentasunaren atarian argitaratzea barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikuluekin bat.
- Titularrek eskubidea izanen dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatu, kontra egiteko eta datuak eramateko, eta eskubidea gauzatu ahal izanen dute udal-bulegoetan, datuak babesteko ordezkariaren bidez, [dpd@berriozar.es](mailto:dpd@berriozar.es) helbidean, edo webgunearen bidez ([www.berriozar.eus](http://www.berriozar.eus)). Azken horretan, argibide gehiago aurkituko dute.
- Halaber, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ([aepd.es](http://aepd.es)), uste badute datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

### 11.– Helegiteak.

Deialdi honen, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautaz, ondoko helegiteetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari zuzenduta, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.
- b) Administrazioarekiko auzi-helegitea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzenduta, erabaki hau edo hel egiten den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.
- c) Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduta, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Gora jotzeko helegitea aurkez daiteke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. Artikuluan aipatzen diren kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka alkateari zuzenduta, hilabeteko epean, hel egindako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

**EGINBIDEA:** Aditzera emateko oinarri hauek Alkatetzaren 20210283 zenbakiko ebazpenaren bidez onetsi direla, 2021eko apirilaren 28an.

Berriozarren, sinadura elektronikoaren egunean.

Raul Maiza González alkatea.

Natalia Rodríguez Aguado idazkaria.



**AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**  
**BERRIOZARKO UDALA**

**ANEXO I / I. ERANSKINA**

D/D <sup>a</sup>		<i>jn./and</i>	Doc. N <sup>o</sup> <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. <i>P.K.</i>	
Localidad <i>Herria</i>	N <sup>o</sup> teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>	

(táchese lo que no proceda) en nombre propio o en representación de  
*(ezabatu behar ez dena) bere izenean edo ondoko honen izenean :*

D/D <sup>a</sup>		<i>jn./and</i>	Doc. N <sup>o</sup> <i>Agiri zk.</i>
Domicilio. <i>Helbidea</i>		C.P. <i>P.K.</i>	
Localidad <i>Herria</i>	N <sup>o</sup> teléfono <i>Telefono zk.</i>	Correo electrónico <i>Posta elektronikoa</i>	

Ante VD. comparece y como mejor proceda dice:

*Zure aurrean agertu eta azaltzen dut:*

Que, vista la convocatoria realizada por el Ayuntamiento de Berriozar para la constitución de una lista Profesor/a de Escuela de Música, en la especialidad de piano y con conocimiento de euskera para la escuela de música para contrataciones temporales.

*Berriozarko Udalak deialdia egin duela Berriozarko Udaleko piano espezialitateko Musika Eskolako irakasle izateko, izangaien kontratazio-zerrenda osatzeko (aldi baterako lan-kontratu).*

**SOLICITA**

**ESKATZEN DUT**

Ser admitido/a a la citada convocatoria, indicando:

*Aipatutako deialdian onartua izatea eta, horretarako, zera azaltzen dut:*

Que con el fin de acreditar el nivel de euskera

*Euskara maila egiaztatzeko,*

a/ tiene certificación oficial

a/ ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala

b/ solicita realizar prueba de nivel de euskera

b/ euskara proba egitea eskatzen dudala

Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.

*Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.*

Berriozar, (fecha / *data*) \_\_\_\_\_

(firma / *sinadura*)

**INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCION DE DATOS.** Responsable del tratamiento de los datos personales aquí registrados: Ayuntamiento de Berriozar. Finalidad: selección de personal para la provisión de puestos de trabajo objeto de esta convocatoria. Derechos: acceso, rectificación, supresión. Más información en la base 11 de la convocatoria.

**DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK.** Hartutako datu pertsonalen tratamendu-arduraduna: Berriozarko Udala. Xedea: deialdi honen helburua diren lanpostuak hornitzeko langileak hautatzea. Eskubideak: sarbidea, zuzenketa, ezabaketa. Informazio gehiago deialdiaren 11. oinarrian.